

## A24

## Aide handiok bidaldu deustae...

Beste poema batean (A19 *Aitak ezkondu ezpanagi...*), hogeituroko neska gazteak ezkontzan bilatzen zuen grina eta desio sexualentzako irtenbidea; poema honetan, berriz, adin bereko mutil gazteak ez du inola ere ezkontzerik nahi, hain zuzen ezkontza bizitza sexual askerako oztopo iruditzen zaiolako, besteak beste. Ezkontzen den mutilak ez du gehiago aukerarik izango dama-zerbitzean gozatzen diren plazerekin atsegin hartzeko (7-36), eta, horren orde, kezka, lanak eta nekeak baino ez zaizkio etorriko, emaztearekin eta seme-alabekin (43-102); ondorioz, gizonezkoak nahiago du dagoen bezala segitu askatasunean, *amoradua* eta *dama serbietan*, baina amaren babespean (*honek sustenduko nau egunean da gabea*), eta ez du hain gazte ezkondu nahi (103-175).

Poema honetan bezala B27-n ere (*Jakizu bada, gura badozu...*) ahaideak dira mutila ezkonarazten ahalegintzen direnak. Joan Perez Lazarragakoaren datu biografikoekin lotu dira poema biak, gauza ezaguna baita (Di Cesare 2009) 1575ean ezkondu zela Katalina Gonzalez Langarikakoarekin, eta ezkontza hori bi familien arteko erlazioaren jarraipena izan zela, Joanen osaba, bere izen berekoa, eta Katalinaren izeba Ana Gonzalez Langarikakoa ere elkarrekin ezkonduak baitziren, baina seme-alabarik gabe, eta Joani eta Katalinari utzi baitzieten ondoreta; pentsatzekoa da, hortaz, bi familien artean adosturiko elkarketa izango zela, bi familien interesen arabera. Alde horretatik, bereziki interesgarriak dira ezabaturik agertzen diren lehenengo bi bertso-lerroak: *Arriolarik oita Larrara / jatsi ei da karte*. Arriolako jauregikoak ziren, hain zuzen, Gonzalez Langarikakoak, hots, Joanen emazte izango zenaren familiakoak, eta Larrakoa (esan nahi baita Larreakoa) zen Joanen osaba, bere izen berekoa, oinordetza utziko ziona (Joan Perez Lazarragakoa, idazlea, ezkondu ondoren aldatu zen Larreako dorrera bizitzera, 1576an); hortaz, Katalinaren gurasoek idazten diote Joanen osabari, ezkontza paratzeko eskatuaz.

<1195v>	Aide handiok <sup>1</sup> bidaldu deustae eskrebidurik karte ezkondu gura nindukeela. Ene gogoko tristea! Oi eta <sup>2</sup> bardin <sup>3</sup> honela bada, <span style="float: right; vertical-align: middle;">5</span> handia jatort kaltea, zegaiti behin ezkonduzker <sup>4</sup> galdu dot libertadea. Honeinbatena <sup>5</sup> oi kenduko jat amoraduen <sup>6</sup> nonbrea; <span style="float: right; vertical-align: middle;">10</span> eragotziko deraustae <sup>7</sup> damaok serbietea. Akordaduko sekula ez jat kalean paseatzea; astirik barriz ez dot izango <span style="float: right; vertical-align: middle;">15</span> zehar ifinten gorrea. <sup>8</sup>
---------	---

<sup>1</sup> *Aide handiok*: ‘ahaide hurkoek, hurbilek’. Ezabaturiko bertsoan (*Arriolarik oita Larrara / jatsi ei da karte*) *jatsi* aditza erabili da, Arriola (635 m) gaintxoan dagoelako Larreatik (565 m) begiratu gero.

Bertsio berrian (*Aide handiok bidaldu deustae / eskrebidurik karte / ezkondu gura nindukeela*), bi familien erreferentzia zuzena ezabatu da.

<sup>2</sup> *Oi eta*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka hemengo *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>3</sup> *bardin*: ‘baldin’.

<sup>4</sup> *ezkonduzker*: ‘behin ezkondu, ezkondu eta gero’.

<sup>5</sup> *Honeinbatena*: ‘honenbestez’.

<sup>6</sup> *amoraduen*: ‘amoraduen’.

<sup>7</sup> *deraustae*: ‘didate’.

<sup>8</sup> *zehar ifinten gorrea*: Badirudi txapela zehar ipintzeak damak gorteiatzeko prest egotea esan nahi duela.

	Gabetan barriz ez jagot joko laztanai <sup>9</sup> biguelea, <sup>10</sup> ez gehiago <sup>11</sup> oneretxiai bentanarean <sup>12</sup> flautea.	20
	Debekatuko oi deustae hari egiten apea; <sup>13</sup> ez gehiago ez jagot joko kontereagaz <sup>14</sup> atea.	25
	Erraz daoke <sup>15</sup> azkero <sup>16</sup> geldi oi ene errodelea; <sup>17</sup> arkaan <sup>18</sup> barriz erraz dafinket <sup>19</sup> maila finezko kotea. <sup>20</sup>	30
	Oi eztot zerren <sup>21</sup> azkero janzi seda finozko kalzea, <sup>22</sup> ez gehiago haren gainean zapata kutxilladea. <sup>23</sup>	35
<1196r>	Oi harrezkero <sup>24</sup> nik ez dot zerren <sup>25</sup> estudiadu danzea, ez gehiago dekoru jakin <sup>26</sup> pabaneagaz baja. <sup>27</sup> Ondasun hoek galdu badagit, <sup>28</sup> semea ditxabagea; <sup>29</sup>	

<sup>9</sup> *laztanai*: ‘laztanari’.

<sup>10</sup> *biguelea*: ‘bihuela’. Gitarraren antzeko hari-instrumentua da, eta hain zuzen XVI. mendean izan zuen loraldia Iberiar Penintsulan.

<sup>11</sup> *ez gehiago*: ‘ez eta ere’.

<sup>12</sup> *bentanarean*: ‘bentantatik, leihotik’.

<sup>13</sup> *egiten apea*: ‘musu ematea’, *debekatuko* aditzaren osagarria.

<sup>14</sup> *kontereagaz*: ‘ezpata-zorroaren muturreko atalarekin’.

<sup>15</sup> *Erraz daoke*: ‘ziurrenik egongo da’.

<sup>16</sup> *azkero*: ‘geroztik’.

<sup>17</sup> *errodelea*: ‘erredola’.

<sup>18</sup> *arkaan*: ‘arkan’.

<sup>19</sup> *dafinket*: ‘ipiniko dut’.

<sup>20</sup> *Erraz daoke azkero geldi / ... / ... / maila finezko kotea*: Bi esaldi hauek esan nahi dute mutil gazteak ez duela gehiago justetan parte hartuko, erabili gabe geratuko baitira horietako partehartzaileen ezaugarri diren erredola eta kota-jantzia.

*maila finezko kotea*: ‘sare finezko kota, sare finezko halakreta (gerritik gorako babes-jantzia)’.

<sup>21</sup> *eztot zerren*: ‘ez dut zertan / zergatik’; zehar galdera da, ez kausazko perpaus.

<sup>22</sup> *kalzea*: ‘galtza zabal dotorea’.

<sup>23</sup> *zapata kutxilladea*: ‘ebaki apaingarriak dituen oinetakoa’. Dotoreziaren eta modara janztearen ezaugarri dira hala zeta finezko galtzak nola oinetako kutxilatua.

<sup>24</sup> *arrezkero*: ‘ordutik aurrera’.

<sup>25</sup> *ez dot zerren*: ‘ez dut zertan / zergatik’; ikusi A24: 29 lerroko oharra.

<sup>26</sup> *dekoru jakin*: ‘buruz jakin’.

<sup>27</sup> *pabaneagaz baja*: ‘pabana eta baja’; “Xgaz Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

Hala *pabanea* nola *bajea* XVI. mendean modan izan ziren dantzen izenak dira. Ikusi Bennet (2003): “*Pavana*: Una danza señorial cortesana del siglo XVI en la que las parejas avanzan en una procesión lenta y majestuosa. La música es en compás binario o cuaternario, de tempo lento a moderado” eta “*Baja danza*: Una danza lenta y majestuosa (en compás ternario o binario) muy popular a finales del siglo XVI. En sus pasos, los pies se deslizaban suavemente, casi sin separarse del suelo, de allí su nombre, danza baja, que contrasta con otras danzas que incluían saltos, brincos y cabriolas”.

<sup>28</sup> *galdu badagit*: ‘galtzen baditut’.

<sup>29</sup> *semea ditxabagea*: ‘zuen semea izango da ditxabagea’.

erruki nauzu, <sup>30</sup> neure aideak, zegaiti nax ni gaztea.	40
Oi oraingaino <sup>31</sup> ez nax ni heldu oi bada hogei urtean, <sup>32</sup> oi eta, barriz, handiegi da ezkonduaren kargea; bertati <sup>33</sup> dakar gizonaenzat ardurea ta plagea. <sup>34</sup>	45
Enzuzu eta dirakatsudan <sup>35</sup> ezkonduaren dotea: Ezkondu eta lenaengoa ona dau hilabetea;	50
badanik bere, <sup>36</sup> bertati dauko kargutan aziendea. <sup>37</sup> Berandu etzin <sup>38</sup> eta gox jagi, iruli <sup>39</sup> sarri ohean, pensamentua darabilela leku askotan, fedea! <sup>40</sup>	55
Pobrea bada, zegaiti eztau zegaz sustendu <sup>41</sup> onrea, askotan estu <sup>42</sup> oi beharko dau erreileagaz goldea; <sup>43</sup>	60
izerdi-orio <sup>44</sup> franko behar dau oi bere bular artean. Maira datorrenean, barriz, baba zigorrez <sup>45</sup> saldea; zazpi librako tremes <sup>46</sup> handia	65
faisaetzat <sup>47</sup> aldean; ardao zuri San Martingoa pitxerraz iturriean. <sup>48</sup>	

<sup>30</sup> *erruki nauzu*: ‘erruki izan nazazue’.

<sup>31</sup> *oraingaino*: ‘oraindaino, oraindik’.

<sup>32</sup> *hogei urtean*: ‘hogei urteetara’; ezkondu beharraz mintzo den beste pasarte batean ere adin bera aipatzen du (nahiz neskak hitz egiten duen beste honetan): *Ezkonketako edadea deut, / hogei urtean helduzkero* (A19: 5-6).

<sup>33</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>34</sup> *plagea*: ‘plaga, nekea’.

<sup>35</sup> *Enzuzu eta dirakatsudan*: ‘entzun ezazu(e) eta irakatsiko dizu(e)t’.

<sup>36</sup> *badanik bere*: ‘hala ere’.

<sup>37</sup> *dauko / kargutan aziendea*: ‘aziendaren kargu egiten du, ondasunen ardura hartzen du’.

<sup>38</sup> *etzin*: ‘etzan’.

<sup>39</sup> *iruli*: ‘bueltak eman, mugitu’.

<sup>40</sup> *fedea!*: ‘ala ene fedea!’.

<sup>41</sup> *sustendu*: ‘sustengatu, iraunarazi’.

<sup>42</sup> *estu*: ‘estutu’.

<sup>43</sup> *erreileagaz goldea*: ‘erreila (golde-muturra) eta goldea’; “Xgaz Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

<sup>44</sup> *izerdi-orio*: ‘izerdi’.

<sup>45</sup> *zigorrez*: ‘lehorrez’.

<sup>46</sup> *tremes*: ‘ogi-irin hutsarekin egin beharrean, beste zerbaitekin (zekalea, artoa, zahia...) nahasiz egindako ogia’; ogi merkea eta ez oso ona esateko erabilita dago.

<sup>47</sup> *faisaetzat*: ‘faisaitzat, faisaiaren ordezt’; faisaiaren erosteko dirurik ez duenez, ogirik merkeena haren ordezt.

Ume txipirik oi eta badau, hazaiketako <sup>49</sup> lotsea; <sup>50</sup> haziakero <sup>51</sup> ezkonketako hotzegi dago polsea.	70
Pobreonenzat oi gatzik asko, aberatsonek doblea. Mutil-neskatoz lenaengoa <sup>52</sup>	75
bete behar dau etsea, oi eta haen gobernatzeko <sup>53</sup> behar dau handi mainea. <sup>54</sup> Pausorik asko egin behar dau sustentatzeko <sup>55</sup> plazea;	80
kontu handia behar dau egin ez erorteko harean. <sup>56</sup> Emazteori ona ezpadau, etsean errierte.	
Alkar aditu ezpadagie, <sup>57</sup> ez dabil ondo etsea, kapelaetan darabiltela beti haragi errea; <sup>58</sup> haragionen <sup>59</sup> jaaterako atsekabazko salsea. <sup>60</sup>	85  90
Abenietan <sup>61</sup> badira bere, ezta faltako kargea: interesean beti darabil gizonak borondatea. <sup>62</sup> Ama askoren seme askogaz <sup>63</sup>	95

<sup>48</sup> *ardao zuri San Martingoa / pitxerraz iturriean*: ‘San Martingo iturriko ura, ardo zuriaren orde, pitxerrian’; ziur aski, hitz-jokoa egiten ari da: ezkonduarentzat, San Martingo iturrian hartzen duen ura da San Martingo ardo bakarra. Sarri agertzen da “vino de San Martín” espainiar literaturan XVI-XVII. mendeetan, eta ez dakigu zehazki zein izan litekeen San Martingo iturria Lazarragaren eskualdean, baina aipatzekoak dira gutxienez Tourseko San Martini dedikaturiko ermita ospetsua Hermuan (Larrea ondoan; Larreakoak urtero joaten dira hara uztailearen 4an, “El Barte” jaia ospatzera, eta txistulariei ardo zuria ematen zaie), San Martingo ermita Agurainen (orain udaletxea dagoen lekuan) eta Tourseko San Martinen eliza Gazeon.

<sup>49</sup> *hazaiketako*: ‘hazteko’.

<sup>50</sup> *lotsea*: ‘beldurra’.

<sup>51</sup> *haziakero*: ‘hazten denean, hazten den momentutik’.

<sup>52</sup> *lenaengoa*: ‘lehenengo, lehenbizi’; artikulua erantsi zaion arren, adberbioa da.

<sup>53</sup> *haen gobernatzeko*: ‘haiek (mutil-neskatoak, umeak) gobernatzeko’.

<sup>54</sup> *behar dau handi mainea*: ‘handia behar du trebezia’.

<sup>55</sup> *sustentatzeko*: ‘sendo eusteko’.

<sup>56</sup> *harean*: ‘handik’.

<sup>57</sup> *Alkar aditu ezpadagie*: ‘elkar ulertzen ez badute, elkarrekin ondo konpontzen ez badira’.

<sup>58</sup> *kapelaetan darabiltela / beti haragi errea*: Gauzak behar ez den moduan egitea adierazi nahi du, dirudienez, haragi errea kapeletan (eta ez plateretan edo erretiluetan) erabiltzeak, baina ez dugu aurkitu irudi horren beste lekukotasunik.

<sup>59</sup> *haragionen*: ‘haragi hau’; *jaaterako* aditzaren objektua da.

<sup>60</sup> *haragionen jaaterako / atsekabazko salsea*: Aurreko bertso-lerroetako (A24: 85-88) irudiarekin jarraitzen du: gauzak txarto eginez gero, are atsekabe handiagoa sortzen da senar-emazteak txarto konpontzen diren etxean. Antzeko hitz-jokoa dago hurrengo poeman: *ni banajoa salsearen aurkietan* (A25: 7).

<sup>61</sup> *Abenietan*: ‘ados jartzen’.

<sup>62</sup> *interesean beti darabil / gizonak borondatea*: ‘gizonak beti bilatzen du bere interesa’.

	behar dau batu urtean; ordu askotan oita behar dau iregi <sup>64</sup> bere polsea. Semerik badeu esaten jago: <sup>65</sup> “Aita, egidak jakea”; hari jakea egin orduko, alabeorrek gonea. Oi hainbat dakust lazzeria <sup>66</sup> ze eraetan jat, <sup>67</sup> fedea! Honi aparta al dakiona, <sup>68</sup> ditxa onezko semea.	100
<1196v>	Edola bere, urten artean <sup>69</sup> hogeta hamar urtean, <sup>70</sup> neuronek hala egin gura dot, bizi al baninz artean. Jaun Zerukoak, arren, dindala <sup>71</sup> kunplietako ditxea. Nigaz ezkondu gura dabena sosega bidi <sup>72</sup> bakean; oi honegaiti itxaden <sup>73</sup> begi dozenaxe <sup>74</sup> bat urtean; artean, barriz, goza dezadan oraingo libertadea. Oi honi luze deretxanori <sup>75</sup> ze bego <sup>76</sup> ene ustean. <sup>77</sup> Oi nitaukat <sup>78</sup> emazte on bat, zeina dan ama andrea; <sup>79</sup> Jaun Zerukoak honi demala <sup>80</sup> bizi ona ta luzea, zegaiti honek sustenduko nau egunean da <sup>81</sup> gabeen.	110
		115
		120
		125

<sup>63</sup> *Ama askoren seme askogaz*: ‘jende askorekin’.

<sup>64</sup> *iregi*: ‘ireki, zabaldu’.

<sup>65</sup> *esaten jago*: ‘esaten dio’.

<sup>66</sup> *lazzeria*: ‘miseria, eskasia’.

<sup>67</sup> *eraetan jat*: ‘erotzen naiz’.

<sup>68</sup> *Honi aparta al dakiona*: ‘honi ihes egin ahal diezaiona’, hots ‘ezkontzetik eta ezkontzearen ondoriozko lazeria ihes egin ahal dezana’.

<sup>69</sup> *urten artean*: ‘(ezkondurik etxetik) irten artean’ esan nahi du.

<sup>70</sup> *hogeta hamar urtean*: ‘hogeita hamar urterekin’.

<sup>71</sup> *dindala*: ‘eman diezadala’.

<sup>72</sup> *sosega bidi*: ‘lasaitu bedi’.

<sup>73</sup> *itxaden*: ‘itxaron’.

<sup>74</sup> *dozenaxe*: ‘dozenatxo’.

<sup>75</sup> *honi luze deretxanori*: Dozenatxo bat urte itxaroteari luze irizten dion hori, alegia.

<sup>76</sup> *ze bego*: ‘ez dadila egon’.

<sup>77</sup> *ene ustean*: ‘ene zain, ene esperantzan’.

<sup>78</sup> *nitaukat*: ‘nik daukat’.

<sup>79</sup> *ama andrea*: ‘ama’, eta ez ‘amona’. Ematen du poetak aita galdu duela (1564an hil zuen emaztearen senitarteko batek), ahaide hurkoek agintzen dutela bere ezkontzaz, eta ama bakarrik agertzen dela babes gisa.

<sup>80</sup> *demala*: ‘eman diezaiola’.

<sup>81</sup> *da*: ‘eta’.

Gradu handian jarririk nago, ene egitafedea; <sup>82</sup> oi orain ez letorket <sup>83</sup> ondo harereanik <sup>84</sup> jastea. <sup>85</sup>	130
Orain dama bat serbietan dot, lindea parebagea; oi eztauko merezidurik niganik <sup>86</sup> anzieta, <sup>87</sup> egin deustan mesedeak serbidu jagin artean, <sup>88</sup> zegaiti nei traspasadu <sup>89</sup> amorearen legea.	135
Oraindo <sup>90</sup> beti izan nax oi amoradu firmea; orain ez neuke errazoarik izenau borraetea, <sup>91</sup> ez gehiago gaztazaroau <sup>92</sup> hain laster anzieta.	140
Klaramente dakustan gero <sup>93</sup> galzaiten libertadea, ezkonduzkero <sup>94</sup> probetxaetan oi ezta damuketea.	145
Uztarriori ezarrizkero, sufridu behar goldea; orapilagaz <sup>95</sup> lotu azkero, neke da askaetea.	150
Gauza fortitza <sup>96</sup> oi dana <sup>97</sup> bakust <sup>98</sup> ezkonduaren kargea; karga handia sufrietako oraindo <sup>99</sup> nax gaztea. Hazaiteau <sup>100</sup> galdu lerait <sup>101</sup>	155

<sup>82</sup> *ene egitafedea*: hurrek zin egiteko erabili ohi zuten esapidea.

<sup>83</sup> *letorket*: ‘letorkidake’.

<sup>84</sup> *harereanik*: ‘handik’.

<sup>85</sup> *jastea*: ‘jaistea’.

<sup>86</sup> *niganik*: ‘nik’.

<sup>87</sup> *anzieta*: ‘ahaztea’.

<sup>88</sup> *serbidu jagin artean*: ‘niri serbidu egin artean, serbidu egiten dida(te)n artean, balio dida(te)n artean’.

*Jagi-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkututzen dela.

<sup>89</sup> *nei traspasadu*: ‘hautsi nezake’.

<sup>90</sup> *Oraindo*: ‘orain arte’.

<sup>91</sup> *ez neuke errazoarik / izenau borraetea*: ‘ez nuke arrazoarik izen hau borratzeko’.

<sup>92</sup> *gamtazaroau*: ‘gamtaro hau’.

<sup>93</sup> *dakustan gero*: ‘ikusten baitut, ikusten dudanez’.

<sup>94</sup> *ezkonduzkero*: ‘ezkontzen garen momentutik’.

<sup>95</sup> *orapilagaz*: ‘orapiloagaz, korapiloarekin’.

<sup>96</sup> *fortitza*: ‘bortitza, sendoa’.

<sup>97</sup> *dana*: ‘dela’; *-na* konpletiboa.

<sup>98</sup> *bakust*: ‘badakust, ikusten dut’.

<sup>99</sup> *oraindo*: ‘oraindik’.

<sup>100</sup> *Hazaiteau*: ‘hazte hau’.

ardura usatzakeak;<sup>102</sup>  
 ene haginok ezin jan leie  
 haragi errebagea;<sup>103</sup> 160  
 estomagoau galdu leiket  
 bianda probatzakeak.<sup>104</sup>  
 Ohean kalentureak liket<sup>105</sup>  
 lagunik baneu aldean;  
 laster batean oi lirakasket<sup>106</sup> 165  
 beste mundura bidea.  
 Gauza sakona bide<sup>107</sup> da, izan,  
 itsaso hondarbagea;  
 neure buruau ez nei ondo  
 andratan konfiatzea.<sup>108</sup> 170  
 Ene aideak, oi arren, hau da  
 neuronen respuestea:  
 akordaetan<sup>109</sup> ez dodala  
 hain laster ezkonketea.

Lazarraga

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A24 – Aide handiok bidaldu deustae... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

<sup>101</sup> *galdu lerait*: ‘galaraz liezadake’.

<sup>102</sup> *ardura usatzakeak*: ‘ardura usatzakeak, ardura ez erabiltzeak, arduragabe jokatzek’, hain zuzen ‘gazteegi ezkontzek’.

<sup>103</sup> *haragi errebagea*: Neska gazte dontzeilak dira, ziur aski, ‘haragi erregabea’.

<sup>104</sup> *bianda probatzakeak*: Berriz ere neska gazte dontzeilak dira, ziur aski, ‘bianda probatugabea, janari dastatu gabea’.

<sup>105</sup> *kalentureak liket*: ‘sukarrak emango lidake, joko ninduke, harrapatuko ninduke’, hots, ‘sukarra izango nuke’.

<sup>106</sup> *lirakasket*: ‘irakatsiko lidake’.

<sup>107</sup> *bide*: ‘dirudienez’.

<sup>108</sup> *Gauza sakona bide da, izan, / ... / ... / andratan konfiatzea*: Molde tradizionalako kopletan bezala (ikus eskuizkribu honetan A4: 9-12 eta A4: 17-20), bi bertso-lerrotan sarrera estilizatu gisako irudi ordezkaria eskaintzen da (A24: 167-168), eta beste bi bertso-lerro figuratibotan irudi fokala (A24: 169-170), ondokoa esango balu bezala: ‘itsaso hondarbagea sakona dela esatea baieztapen ukaezina den bezala, ukaezina da orobat ez litzatekeela zentzuzkoa izango nire burua andren esku uztea’.

<sup>109</sup> *akordaetan*: ‘onartzen’.